

ttipi ttapa

384



Xanti Oteiza
kaikugilea

03

«Domingo Etxandi zenari esker segitzen du bizirik kaikugintzak» dio Xanti Oteiza erratzuarrak bere esker ona adieraziz. Berak ere baditu ikasleak noiz behinka.



Julen San Miguel
profesionala

24

Udan debutatu du profesionala-tan 17 urteko gazte doneztebarrak. Zortzi dira berekin Doneztebeko herriak profesionala-tan dituen erremontelariak.

2004ko urriaren 21a • XXIV. urtea

04

NAFARROAN EUSKARA BERRIZ ERE BAZTERTUA

Euskal eremu osoan ez da aurreikusten frekuentziarik euskarazko telebista lokalentzat



KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

PUBLIZITATE AGENTZIA
Iragarkiak irratia, telebista
eta egunkarietan.

Publizitate kanpainen
antolaketa eta
gestioa.

**DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,
ZERBITZU INTEGRALA**

Andutzeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi-net



» ALDIZKARIAK

» BUZOIRATZEKOAK

» FOILETOAK

» TXARTELAK

» LOGOTIPOAK

» FAKTURAK

» KARTELAK

» LIBURUAK

MUEBLES AMETS




**Iarunbat
arratsaldetan
irekia**

4000 m² erakusketa

Sarrera
BERATik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



**Zatoz
eta
ikusi
gure
aukera**

- Sukaldeak
- Egongelak

DATUAK...

• **Xanti Oteiza erratzuarra autobus gidaria da ofizioz eta kaiku egile afizioz. Kaikuez gain, artzainek erabiltzen zituzten bertze tresnak eta lehenagoko gauzak ere egiten ditu: zimitzak, aratzak, iragazkiak, ontziak, balatzak, oporrak... «Beti gustatu izan zait zureko lana» dio.**

• **Orain gehienak apaingarriako saltzen dira: «Gehien saltzen dena kaiku ttikia izaten da. Orai ferietan gutiago ibiltzen naiz, aspertu naiz, etxean goxo-goxo egotea nahiago dut».**



Xanti OTEIZA Erratzuko kaikugilea

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

ELKARRIZKETA

«Domingo Etxandi zenari esker segitzen du bizirik kaikugintzak»

Joseba OLAGARAI

Nola hasten duzu kaikua egiteko prozesua?

Udazken hasiera izaten da materia- la ekartzeko eta hustutzeko sasoia. Haize korrienteak hartzen ez duen to- ki batean utzi behar da idortzen be- rrogei bat egunez, haizea txarra bai- ta, korriente horrek zura lehertu egi- ten du. Orain materiala ekarri eta uda- berrira bizkitartean uzten dut, izerdia botatzen hasten den arte. Orduan hasten naiz kaikua edo dena delakoa lantzen.

Goizean goiz hasten zara kaikua egiten...

Zazpiak eta laister hasten naiz, eguer- dira bitarte. Arratsaldean ere buelta bat ematen dut, baina sobera egin gabe, aspertzen baita.

Orain bakarrik aritzen zara, baina neguan herriko ikasle bat ere izan zenuen...

Mutil gazte bat izan nuen, bai, Jon... Ez dakit segitzen duen, seguruenik bai, baizik harek ere hainbertze lana baitzuen. Seguru aski nik bezala ne- guan aisago egingen du, ezin baita kanpora ateri. Mutiko mañosoa da eta

«Egurra baldin bada erreka bazterrekoa aisa goxoagoa da lanerako. Aldiz, harri tokikoa dena zailagoa da. Beti urkia erabiltzen dut kaikuak egiteko»

interesa jartzen duena. Badira bertze batzuk lanarekin aspertzen direnak. **Lan handia al du kaiku bat egite- ak?**

Kaiku bat hasi eta akitu arte egun ter- di edo bi egun behar dira, kaiku ba- karra egiteko. Ongi egiteko hori be- har da. Lehenbiziko lana forma ema- tea da, gero kiderra atera, gero pre- tatu eta barrena atera behar da. Ge- ro, berrogei bat egun edo hilabete bat utzi behar da idortzen, beraz ezin da kaikua osorik segidan egin. Tarte ho- rretan kuido handia izan behar da, zura lehertzen ahal baita eta lana aka- bo! Urtero badira batzuk lehertzen di- renak. Azkenean, berriz ere hartu eta kaikua akitu behar duzu, findu eta leundu. Maina pixko bat behar da kai- kua egiteko, baina batez ere denbo- ra, astia, gogoia eta pazientzia.

Zura tailatzen ere aritzen zara?


Zimitza egiteko, beharko! Taila ez zait gogorki gustatzen baina zimitzak egin behar baitira. Bertzela ez naiz tailan aritzen.

Egur batetik bertzera ezberdinta- sun haundiak izanen dira...

Diferentzia politak badira, bai... Egu- rra baldin bada erreka bazterrekoa aise goxoagoa da lanerako. Aldiz, ha- rri tokikoa dena zailagoa da. Beti ur- kia erabiltzen dut. Behin tilo izeneko horretatik erabili nuen, baina puskak kentzeko zaila zen. Normalki egurra neronek ateratzen dut eta bizkarka ekarri tailerrera.

Inguruko herrietan ere badira ber- tze kaikugileak?

Bai, Erratzun berean bada 23-24 ur- teko bertze mutil gazte bat, xarman- ki aritzen zen eta orai ere arituko de- la pentsatzen dut, hura ere neguan arituko da. Bada Oitzen bat, Zubie- tan bertze bat, Elizondon, Donezte- ben... banaka batzuk segitzen dugu. Halere, garai batean baino gehiago gara. Domingo Etxandik mantendu zuen ofizio hau bizirik eta berari es- ker badu segida kaikugintzak orain.



MARRAZKI BIZIDUNAK: Kalimero, Animalikeriak eta Kalabaza Tripontzia serieak



DOKUMENTAL SERIEAK ETA ERREPORTAIK: Oinak izarretan, Heraldika, Gure lanbide



TELESAILA: Bi eta Bat INFORMATIBOAK, KIROL SAIOAK, SUKALDEKO ERREZETAK...

TTIPI-TTAPA TELEBISTAK programa gehiago eta ordutegi zabalagoa eskainiko ditu aurrerantzean

Aurrerantzean, TTIPI-TTAPA TELEBISTAK berak sortutako telesaioez gainera, Euskal Herrian dauden euskarazko bertze telebistekin elkarlanean osatutako programazioa ere eskainiko du: marrazki bizidunak, telesailak, dokumentalak...

Aldaketa dezente ekarriko du TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN denboraldi berriak. Lehendik jada produzitzen dituen informatibo, kirol saio, erreportaje, musika, sukaldaritza eta bertze hainbat saioez gainera, aurrerantzean, marrazki bizidun, dokumental eta telesailak ere eskainiko ditu.


J. IRIGOIEN

Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Bortziriak eta Baztango udalen subentzioak aski murriz eta eskaxak izan arren (Malerrekako Mankomunitateak ez baitu sekulan subentziorik eman bertako telebistentzat), TTIPI-TTAPAK, bertze 5 telebista lokalekin elkarlanean, programazioa zabaltzeko egitasmoa abiatu berri du. Eta egitas-

mo horren lehenbiziko ondorioa dagoeneko sumatua izanzen dute Bortziriak, Bertizarana eta Malerreka-ko ikusleek. Lehendik jada emititzen den programazioaz gainera, dagoeneko ari baita emititzen entretenimendu eta fikzio saio berriak.

Programazioa zabaltzeko elkarlan-egitasmoaren bigarren fasean garatuko da telebista bakoitzak bere aldetik ekoiztutako programen elkartrukea, batez ere, eskualdeaz

alkain-ek, beti ere zerbait gehiago



Alkain zeramikak eta bainuak saltegian ahalegin guztiak egiten ditugu gure bezeroak ondo artatzen: kalitatea, bariedadea, diseinua, prezio on bat ...**eta zerbait gehiago.**

Horregatik, **zuk komun-ontziak eta iturriak** erosten dituzunean, **kenketa automatikoko txartel bat** emango dizugu altzarietan eta

bainuko akzesorioetan deskontatzeko. Gainera, txartelak zenbaki bat darama eta horrek aukera emango dizu **Kanarietako bidaiaren** zozketan parte hartzeko.

Zatoz eta zeuk egiaztatu: abantaila kontuetan Alkain-en **zerbait gehiago aurkituko duzu beti.**



C/ Amutalde, 21 • Hondarribia • Tel.: 943 64 52 54
www.alkain.com

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osaga -
LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA

ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 948 63 77 80 ·

NA - 31780 LESAKA



urriak 24, Beran

Iurraren eguna 2004

larunbata, 23

20etan: Oin Arin (Lazkao) dantza taldea Kultur Etxean

00etan: Kontzertua Altzaten (Eten, Himen)

igandea, 24

10,30etan: Lizuniagako Igoera

10,30etan: Eskulangileen azoka / Barazki erakusketa / Bortzirietako produktuen salmenta

Taloak eta gasna egun guzian zehar / Argazki erakusketa Labiaga ikastolan

11tan: Txalaparta eta Berako Trikitixa Eskolako emanaldia

12etan: Berako Banda eta Txistulariak / Musika Eskolako Akordiolariak

12etan: Sagardo eta Gasna Lehiaketa

16etan: Gorritiren animaliak

17,30etan: Bertso saioa: Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu eta Julen Zelaieta

18etan: Lehiaketako sari banaketak eta enkantea

19etan: Dantzaldia Irats taldearekin

* Eguraldi ona bada ekitaldi guztiak Altzate karrikan egingen dira,
euria bada, berriz, Kiroldegian eta Alzateko Frontoian.

antolatzailea: Gure Txokoa Elkartea laguntzailea: Berako Kultur Batzordea

